

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### Arraño irisgarritasuna bermatzeko urbanizazio-lanen (III. fasea) kontratazio-espeditentea

2016ko irailaren 16an Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzitako Akordio bidez Arraño irisgarritasuna bermatzeko urbanizazio-lanen (III. fasea) kontratazio espeditentea onartu da.

**1. ENTITATE ESLEITZAILEA:**

a) Erakundea: Laudioko Udala.

b) Espeditentea izapidetzen ari den bulegoa: Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune Arloa.

c) Espediente-zenbakia: OS - 255/2016.

**2. KONTRATUAREN HELBURUA:**

a) Helburua: irisgarritasuna bermatzeko urbanizazio lanak.

b) Burutzapen lekua: Arraño.

c) Burutzapen epea: lau (4) hilabete, Zuinketa Egiatzapen Akta sinatzen denetik zenbatzen hasita.

**3. IZAPIDEAK, PROZEDURA ETA ESLEITZEKO ERA:**

a) Izapideak: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Forma: esleitzeko hainbat irizpide dago.

**4. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA:** oinarria 356.893,69 euro, gehi BEZagatikoko ehuneko 21ari dagozkion 74.947,67 euro, guztira 431.841,36 euro egiten dutela.

**5. BERMEAK:**

a) Behin behinekoa: ez da eskatzen.

b) Behin betikoa: kontratuaren aurrekontuko ehuneko 5a (BEZa kenduta).

**6. ESPEDIENTEA AZTERTU ETA INFORMAZIOA JASO:** Laudion, Herriko Etxean, Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune Arloan. Herriko Plaza 8, 3. solairua, telefonoa: 944034860, iragarki hau ALHAOn argitaratuta agertzen den hurrengo lanegunetik hasita proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

**7. DOKUMENTAZIOA NON LORTU:** Laudioko Udalean, Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune Arloan. Herriko plaza 8, 3. solairua. Telefonoa: 944034860.

**8. KONTRATISTAREN BETEBEHAR ZEHATZAK:** ez da eskatzen.

**9. ESKAINTZEN AURKEZPENA:**

a) Aurkezpen epea: hogeita sei (26) egun natural iragarkia ALHAOn argitaratuta agertzen den hurrengo egunetik hasita.

b) Posta bidalketa: Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioetako Kontratazio Erregelamenduko 80,4. artikuluan ezarritako baldintzekin bat.

c) Aurkeztu behar den dokumentazioa: baldintza pleguaren arabera.

d) Non aurkeztu eskaintzak, Lekua: Herriko Etxeko Sarrera Erregistroan, Herriko Plaza 8 - behea. Posta Kodea 01400, Laudio, (Araba) eskaintzak aurkezteko seinalatutako azken eguneko 13:00ak arte. Dokumentazioa aurkezteagatiko tasak ordaindu behar dira. Kontratazio-mahaiak atzera botako du edo ez du onartuko Sarrera Erregistroan aurkeztutako dokumentazioa, aurkezpena egiteagatiko ordainketa egin barik badauka.

10. NOIZ ZABALDU ESKAINTZAK: deialdia Laudioko Udaleko kontratatzailearen profileen argitaratuko da.

11. PROPOSAMEN EREDUA: lizitatzailiak aurkeztu beharko du eskaintza baldintza pleguan aurreikusitako proposamen eredia erabiliz eta pleguan bertan adierazten diren dokumentuekin batera.

12. IRAGARKIAK ETA ESKAINTZAK AURKEZTEAGATIKO GASTUAK: eskaintzak aurkezten dituztenek eurek ordaindu behar dituzte dokumentazioa barruan daramaten itxitako gutun-azal eta eskaintzak aurkezteagatik udal-ordenantzatik eratorritako tasak. Bestalde, esleipendunak ordaindu beharko ditu eskaintza iragarkien gastuak.

13. KONTRATAZIO-MAHAIA OSATZEN DUTEN PERTSONAK: kontratazio organoaren erabakiz izendatutakoak.

Laudio, 2016ko irailaren 20a

*Alkate-udalburua*

*JON IÑAKI URKIXO ORUETA*